



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: GAZTE BATZARRA

ZENBAGARREN SAIOA: 9

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-18	19:30	20:51

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agurtzane Lekuona, Jon Del Olmo, Eneritz Arbelaitz		
Herritarrak:	Euskaraz: 3		Elebitan:
	Emakumezkoak: 1		Gizonezkoak: 2
	<18 urte:	19-25 urte: 2	26-30 urte: 1 >31 urte:

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Zer egin gazteentzako 5.000€rekin?	Gazte batzarrean bi ariketa egitea zen proposamena: - Ideiak jasotzeko ariketa - Ideien lehentasunak erabakitzeko ariketa. Gazte gutxi etorri direnez, elkarriketa moduan hitz egin dugu egoera. Lehenik eta behin, gazteen egoeraz eta gazteen pasibotasun eta iniziatiba faltaz. Gaur egun aisialdia gazteek gazteentzat antolatu beharko luketela aipatu da. Orain Oiartzun Guk-en badabiltza batzuk, baina antolatzeko beti gutxi biltzen dira. Gazteen inplikazioa landu behar da. Ondorioz, ez da egoki ikusten Udalak gazteentzat gauzak antolatzea aisialdi edo harremanak lantzeko, hori gazteen inplikazioz lortu beharko bailitzateke. Gaztetatik landu behar da hori, eta gaur egun Kuadrillategirekin hori landu beharko litzatekeela ere aipatu da. Formatua aldatu behar zaiola azpimarratu da. DBHko adina da gainera kontsumoa hasten den adina, beraz, hori ere landu beharko litzateke. Harremanak ere lantzen dira adin horretan. Gainera DBH3 eta 4an beharra egongo litzateke. Gazte foroaz ere hitz egin da, gaztetxoak antolatzeko ekintzak, baliabideak emanda. Baina gazteak antolatzen ikasi behar dute.

	Udalaren 5.000€ zertan gastatu hitz egin da. Proposatutako ekintzak: - LAN MUNDURAKO FORMAKUNTZA: gazteek lan mundura murgiltzeko ezjakintasunari aurre egiteko mintegi-tailer-hitzaldi moduko ekintzak edo saioak antolatzea proposatu da. Gaiak izan daitezke: - o Nola egin CV - o Nola prestatu laneko elkarriketa - o Nomina ulertu - o Autonomono nola egin... Larunbata goizak agian egokiak dira, kanpoan ikasten dutenak ere parte hartu ahal izateko. - SUKALDARITZA TAILERRAK gazteentzat. Oinarrizko sukaldaritza tailerrak antolatzea proposatu da. Pretatutako jakiekin segidan otordua egin daiteke egunen batean. Kurtso bukaeran ere pintxo lehiaketa egin liteke. - PELIKULA emanaldiak. Beti ere pelikula alternatiboak, independienteak. Aipatu da hala ere onak ez badira ekartzen, ez dela inor etorriko. Herrian honelako gauzetan lan egiten duten gazteekin antolatzea proposatu da. - Autodefentsa tailerra gazteentzat. Autodefentsa tailerrak beharrezkoak direla ikusten da. Gaztetxoen artean lanketa egin beharra ikusten da eta interesgarria litzatekeela espreski gazteentzat antolatzea. Gazteen ohituren inguruan luze eta zabal hitz egin dugu.
--	--

BALORAZIOA:

Tristuraz baloratu da jende gutxi etorri delako. Errealitatearen isla dela ere aipatu da.